

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

Zk-2796

EBAZPENA, 2003ko martxoaren 3koa, Ingurugiro sailburuordearena, Irurako udalerrian, uholdeen kontra babesteko eta Oria ibaia bideratzeko Proiektuak Ingurumenaren gainean duen Eraginari buruzko Deklarazioa egiteko dena.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1997 Lege orokorraren arabera, bere I. Eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jardunbide baten menpe izango dira eta jardunbide honi amaiera emateko Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Deklarazioa egin behar da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokio, baimentzeko hartzen den administrazio-erabakiaren aurretik.

Irurako udalerrian, uholdeen kontra babesteko eta Oria ibaia bideratzeko Proiektua onartzeko jardunbidea hasi da, eta horrekin zerikusia duten izapideak gauzatu dira, otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Legea, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, eta berau garatzeko den irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuari jarraituz. Honakoak dira izapide horiek:

- Aurretiazko kontsultak, 2001eko apirilaren 19an.
- Uren Zurendaritzak proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana bidali zuen 2002ko maiatzaren 10ean.
- Proiektua eta proiektuak berak ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko azterlana jendaurrean jarri ziren, 30 eguneko epean zehar (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2002ko azaroaren 6ko 211. alea).

Erreferentziako proiektuaren espedientean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa azertu ondoren eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana zuzena dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitzen zaiela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Deklarazioa emateko eskumena duen organoa izanik eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuaren arabera, ondokoa

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Nº-2796

RESOLUCIÓN de 3 de marzo de 2003, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula Declaración de Impacto Ambiental del «Proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento del río Oria en Irura», en el término municipal de Irura.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su Anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento de aprobación del «Proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento del río Oria en Irura», en el término municipal de Irura, y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco como en el Real Decreto Legislativo 1302/1986 de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y en el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en cumplimiento de las citadas disposiciones, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan:

- Trámite de Consultas previas, con fecha 19 de abril de 2001.
- Remisión del proyecto y estudio de impacto ambiental por parte de la Dirección de Aguas, con fecha 10 de mayo de 2002.
- Información pública del proyecto y estudio de impacto ambiental por un período de 30 días. (Boletín Oficial del País Vasco N.º 211 de 6 de noviembre de 2002).

Examinada la documentación técnica y los informes obrantes en el expediente de referencia y a la vista de que el estudio de impacto ambiental resulta correcto y se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Viceconsejería de Medio Ambiente, órgano competente para el dictado de la presente Declaración de Impacto Ambiental, de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y el Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente,

EBATZI DU:

1.– Irurako udalerrian, uholdeen kontra babesteko eta Oria ibaia bideratzeko Proiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginari buruz aldeko Deklarazio hau egitea.

2.– Proiektua gauzatzeko ondoko baldintzak finkatzea. Baldintza horiek lotesleak izango dira Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 47.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

2.A.– Proiektua orokorrean Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa egiteko Ingurugiro Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirien arabera gauzatuko da, eta Ebazpen honetan jasotzen diren zehaztapenen arabera.

Proiektua gauzatzeko aurkeztutako aurrekontuari eta baldintza-pleguari gehitu beharko zaizkie obra-unitate eta prezioak, eta hori dena ingurumenaren gaineko eraginaren deklarazio honek ezartzen dituen neurri babestzaile eta zuzentzaileak eta zaintzeko programa beteazteko.

2.B.– Proiektua zabaldu edo aldatzen bada, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 50. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2.C.– Neurri Zuzentzaileak

Neurri zuzentzaileak burutzeko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako proiektuaren sustatzailerak aurkeztu dituen agirietan aurreikusitakoari jarraituko zaio. Horrez gain honako neurri hauek ere bete behar dira:

2.c.1.– Ibaian ekosisteman ingurumen-ondorio negatiboak saihesteko neurriak.

a) Ubideko 2. tartean gauzatu nahi den erregularizatze-obra berriz proiektatu beharko da, indusiko den material kopurua uholdeak sahiesteko hertsiki beharrezkoa izateko.

Aukeratuko den irtenbideak Ebazpen honetako 2.D atalean aipatutako ingurumen aholkularitzaren aldeko txostena lortu beharko du.

b) Arkauteko presa txikiaren eraisketa eta uhertsitako uren jariapena gradualki egin beharko dira, elementu kutsagarriak ibaian barrena hedatzen ez direla bermatzeko.

c) Arkaute ibaian gora presa txikiaren ondoan pilatutako sedimentuak ateratzeko horien zatirik txikiena ere berriro uretan geratzeko aukerak murriztuko duten metodoak erabiliko dira.

d) Ubidean eragina duten gainerako jarduketak burutzen diren bitartean presa txikiaren oinarria mantendu daitekeen aztertuko da, honela uhertsitako uren bolumena uretan dauden solidoak dekantatzeko adina izango bailitzateke.

RESUELVE:

1.– Formular la presente Declaración de Impacto Ambiental del «Proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento del río Oria en Irura», en el término municipal de Irura, con carácter favorable.

2.– Fijar las siguientes condiciones para la realización del proyecto, las cuales son vinculantes de acuerdo con lo especificado en el artículo 47.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco:

2.A.– El proyecto se desarrollará en términos generales de acuerdo con la documentación presentada en esta Viceconsejería de Medio Ambiente para la Evaluación de Impacto Ambiental del proyecto y específicamente de acuerdo con las determinaciones contenidas en esta Resolución.

El presupuesto y el pliego de condiciones presentados para la ejecución del proyecto deberán completarse con las unidades de obra y precios relativos a la ejecución de las medidas protectoras y correctoras y del programa de vigilancia establecidos mediante la presente declaración de impacto ambiental.

2.B.– En los supuestos de cambios o ampliaciones del proyecto resultará de aplicación lo dispuesto en art. 50 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.C.– Medidas Correctoras.

Las medidas correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor del proyecto para su Evaluación de Impacto Ambiental. Además se cumplirán las siguientes medidas:

2.c.1.– Medidas destinadas a prevenir efectos ambientales negativos sobre el ecosistema fluvial.

a) La obra de regularización del cauce en el tramo 2 deberá ser redefinida de modo que el volumen de material a extraer sea el estrictamente necesario desde el punto de vista de la prevención de inundaciones.

La solución finalmente adoptada deberá contar con informe favorable de la Asesoría Ambiental a que se refiere el apartado 2.D de esta Resolución.

b) El derribo del azud de Arkaute y consiguiente evacuación del agua embalsada deberán realizarse de forma gradual, a fin de evitar la dispersión de contaminantes a lo largo del curso fluvial.

c) La extracción de los sedimentos depositados junto al azud de Arkaute, aguas arriba del mismo, se realizará mediante métodos que mitiguen la resuspensión de la fracción más fina.

d) Deberá analizarse la posibilidad de conservar la base del azud durante la ejecución del resto de actuaciones con afección al cauce, con objeto de mantener un volumen de agua embalsada tal que permita la decantación de sólidos en suspensión.

e) Ubidea drainatzerakoan irregulartasunak, gordelekuak, lupetzak, etab. agertzea erraztu behar da, habitataren heterogeneitatea nabarmendu eta uretako faunaren berreskuratzen laguntzeko.

2.c.2.– Ur-bazterretako landaretza babesteko eta berreskuratzekeo neurriak.

a) Ibaiaren ezkerreko harri-lubeta egiteko ez zaio bertan dagoen ur-bazterreko landaretzari eraginik egingo. Horretarako, eta lurzoruan edozein jarduketa burutu aurretik, aipatutako aldeko ur-bazterreko landaretza mantentzeko adinako segurtasun-perimetroa zehatz-mehatz mugatuko da, lehenik xehetasunezko mapa eta, ondoren, eremuan bertan, balizatuta.

b) Obrara, makinetarako parkera eta materialak eta landare-lurraren aldi baterako hornidurak biltzeko guneetarako sarbideak gutxienezko ingurumen-eraginaren irizpideari jarraiki eraikiko dira. Obrak hasi aurretik, aipatutako alderdi horiek xehetasunezko kartografian zehatz-mehatz mugatuko dira.

c) Edonola ere, aplikagarriak izango dira urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretua, Gipuzkoako florako zenbait espezie babesten dituen, eta 1994ko uztailaren 8ko 6/94 Mendiei buruzko Foru Araua

d) Baldin eta ur-emia ebakutzeko ahalmenean eragin nabarmena ez badu, eskuinaldeko harri-lubetaren lerrotik gora dagoen mendoitzeko lurretan landareak jarriko dira berritri, hots, ur-bazterreko espezieei dagozkien zuhaixkak eta baso-tamainako zuhaitzak.

e) Obrak eragiten dituen eremu guztiak leheneratuko dira, baita aurkeztutako leheneratze-planean bildu ez arren obra amaitzean aldaketarik jasan duten eremuak ere.

2.c.3.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak

Obrak dirauen bitartean, garbiketa-lanen kontrol zehatza egingo da ibilgailuak pasatzeko tokietan, bai proiektuaren eraginpeko ingururik zehatzenean eta eraginpeko ingurunean bai sarbideetan eta, batez ere, bizilagunak dituzten guneetan eta dauden bideetatik obrarako sarbideetan. Pistak eta aldi batean gorrituta dauden lurrazalak ureztatzeko sistema jarriko da. Era berean, partzela-barrutiko kamioi irteeran erruedak garbitzeko sistema jarriko da.

2.c.4.– Zaraten ondorioak gutxitzeko neurriak

Obrak eragindako zaratak obrak egiteko dagokion udal-lizentziaren bidez arautuko dira.

2.c.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak

e) El dragado del cauce deberá realizarse de manera que se favorezca la aparición de irregularidades, refugios, pozas, etc., con el objeto de incrementar la heterogeneidad del hábitat y propiciar la recuperación por parte de la fauna acuática.

2.c.2.– Medidas destinadas a la protección y recuperación de la vegetación de ribera

a) La escollera en la margen izquierda del río se realizará evitando la afección a la vegetación de ribera existente. Para ello, con carácter previo a cualquier actuación sobre el terreno se realizará una delimitación precisa en cartografía de detalle y balizado en campo de un perímetro de seguridad suficiente que permita la preservación de la vegetación de ribera de dicha margen.

b) Los accesos de obra, parque de maquinaria y área de almacenamiento de materiales y de los acopios temporales de tierra vegetal se proyectarán en base a criterios de mínima afección ambiental. Con carácter previo al inicio de las obras, se realizará una delimitación precisa en cartografía de detalle de los aspectos anteriores.

c) En cualquier caso, serán de aplicación el Decreto Foral 4/1990 de 16 de enero, por el que se establece la protección de determinadas especies de la flora del Territorio Histórico de Guipúzcoa y la Norma Foral 6/1994, de 8 de julio de 1994 de Montes.

d) Se revegetarán las superficies del talud superior a la línea de escollera en la margen derecha, mediante la plantación de arbustos y árboles de tamaño forestal de especies propias de ribera, siempre y cuando no se interfiera significativamente en la capacidad de evacuación de caudales.

e) Se restaurarán todas las áreas afectadas por la obra, incluidas aquellas que no figurando en el plan de restauración presentado resulten alteradas al término de la misma.

2.c.3.– Medidas destinadas a aminorar las emisiones de polvo

Durante el tiempo que dure la obra se llevará a cabo un control estricto de las labores de limpieza al paso de vehículos, tanto en el entorno afectado como en las áreas de acceso, y en particular en los accesos a obra desde los viales existentes y núcleos habitados. Se contará con un sistema para riego de pistas y superficies transitoriamente desnudas. Igualmente se instalará un sistema de limpieza de ruedas en la salida de camiones del recinto de la parcela.

2.c.4.– Medidas destinadas a aminorar los efectos derivados de los ruidos.

Los ruidos generados por las obras se regularán, en su caso, en la correspondiente licencia municipal de obras.

2.c.5.– Medidas destinadas a la gestión de los residuos.

a) Obrek iraun bitartean sortutako hondakin-motak, hala nola, labarrak prestatzeko jarduketek eragindakoak, indusketa-soberakinak, egiturak eraitsi eta uha-teak desmuntatzearen ondoriozkoak eta garbiketakanpainatik sortutakoak, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorritz kudeatuko dira.

Zabortegira eramaten diren arriskurik gabeko hondakinak, bestalde, hondakinak zabortegira botata desagerrarazteari buruzko abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren arabera eta hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

b) Era berean, erabilitako olioentzat aplikagarria izango da 259/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duena.

c) Arkaute ibaian gora, presa txikiaren ondoan bildutako sedimentuak industria-hondakin geldoen zabortegian bilduta kudeatuko dira; zabortegiak behar bezala baimenduta egon beharko du. Sedimentu hauen karakterizazio fisiko-kimikoa ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanari dagokion 2. eranskinean barneratzen dira.

d) Gune bat aipatutako sedimentuak lehortzen jartzeko atonduko da eta bertan mantenduko dira zabortegi hartzaileak eskatutako hezetasun-baloreak lortu arte.

e) Obrak abian jartzean bete-lan artifizialak daudela ikusita, eragin edo mugitu egin beharko direla aurreikusten bada, betekinen ezaugarriak finkatuko dira lurzorua kutsadura aztertzeke, Ingurumena kudeatzeko Sozietate Publikoak, IHOBE, egindako gida metodologikoan biltzen diren irizpideei jarraiki; honela, aipatutako beteketak kudeatzeko sistema egokiena zehaztu ahal izango da.

f) Aurreko lerroketan ezarritakoa betetzea errazagoa izan dadin, zeregin ezberdinetan sortzen diren hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Zeregin horietako arduradunen erantzukizuna izango da langileek aipatutako kudeaketa-sistemak behar bezala erabiltzen dituztela. Alegia, ez da inoiz hondakinik erreko, ezta erregai eta produktuak biltegitatik edo makinak mantentzetik sortutako kontrolik gabeko hondakinik isuriko ere.

2.c.6.– Ondare kulturalaren babesa

a) Euskal Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bestelako xedapen batzuk betetzearen kaltetan gabe, usiatze lanak egin bitartean aztarna arkeologikoren baten aurkikuntza jazoz gero, lanak denbora batez bertan behera utzi eta Gipuzkoako Aldundiko Kultur Sailari berehala emango zaio horren berri, honek hartu beharreko neurriak adierazi ditzan.

a) Los diferentes residuos generados durante las obras, incluyéndose los resultantes de las operaciones de preparación de los diferentes tajos, los sobrantes de excavación, demolición de estructuras, desmontaje de ataguías y de la campaña de limpieza, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Los residuos no peligrosos con destino a vertedero se gestionarán de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados.

b) Para el caso de los aceites usados, será de aplicación asimismo el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Los sedimentos depositados junto al azud de Arkaute, aguas arriba del mismo, cuya caracterización físico-química se incluye en el anexo 2 del estudio de impacto ambiental, se gestionarán mediante su depósito en vertedero de residuos industriales inertes debidamente autorizado.

d) Deberá habilitarse un área destinada al secado de los citados sedimentos hasta alcanzar los valores de humedad exigidos por el vertedero receptor.

e) Si durante el transcurso de las obras se detectan rellenos artificiales y se prevea su afección o movilización, se realizará una caracterización de éstos, de acuerdo con los criterios de la guía metodológica para la investigación de la contaminación del suelo, elaborada por la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, con objeto de determinar el sistema de gestión más adecuado.

f) Con objeto de facilitar el cumplimiento de lo establecido en los párrafos anteriores, deberán disponerse sistemas de gestión de los residuos generados en las diferentes labores. Los encargados de estas labores serán responsables de la correcta utilización por parte de los operarios de los sistemas de gestión citados. En particular, en ningún caso se producirá la quema de residuos ni el vertido de efluentes incontrolados procedentes del almacenamiento de combustibles y productos y del mantenimiento de la maquinaria.

2.c.6.– Protección del patrimonio cultural.

a) Sin perjuicio del cumplimiento de otras disposiciones de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, si en el transcurso de las labores se produjera algún hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico, se suspenderán preventivamente los trabajos en la zona y se informará inmediatamente al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa que será quién indique las medidas a adoptar.

b) Obrara sartzeko bideak eta makinatarako parkea ezarri eta hornitzeak finkatzeko egiten diren aldi baterako okupazioak burutzerakoan, Anoetako Errota izan zenaren hondarretan eragina izatea saihestu egingo da.

2.c.7.– Garbiketa eta obra bukatzea

Obrak amaitzen direnean, garbiketa-kanpaina zorrotza egingo da, eta proiektuak eragindako area guztiz garbi geratuko da obra-hondakinetatik. Eraistetik sortutako materialak, enkofratze materialak eta, orohar, garbiketa kanpainatik sortutako hondakinak, eremutik atera eta baimendutako zabortegira eramango dira.

2.D.– Ingurumen-aholkularitza

Obrak amaitu arte eta horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, neurri babesle eta zuzentzaileetan ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du Obraren Zuzendaritzak. betekizunen pleguan Obraren Zuzendaritzari izendatutako egitekoak direla eta, aipatutako gaiei buruz Obraren Zuzendaritzak erabakiak hartu aurretik aholkularitza horretako espezialistek egingandako txostena hartu beharko dute gogoan.

2.E.– Lan-programaren diseinua

Lanak hasi aurretik kontratatzaileak jarraian datozen ataletan azaltzen diren gaiei buruzko jarduera-proposamen zehaztua egin beharko du. Proposamen horiek lanen gauzatze programarekin batera jasoko dira eta lanen zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, Ebazpen honetako 2.D atalean aipatutako ingurumen aholkularitzak txostena egin ondoren.

– Xehetasuneko kartografian ezkerreko ur-bazterreko landaretza mantentzeko adinako segurtasun-perimetroa zehatz mehatz mugatzea, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Azterlaneko zehaztapenen arabera.

– Obra-bideak trazatzea, makinatarako parkea eta instalazio laguntzaileak eta materialak biltegitratzeko lekuak finkatzea eta pilatutako landare-lurra aldi batean kokatzea. Obra-eremuaren irteeran jarriko diren kamioi-gurpilak garbitzeko sistemak finkatu eta horien ezaugarrien xehetasunak ematea. Era berean, elementu hauen xehetasuneko kartografia aurkeztuko da eta baita horien leheneratzea aurreikusiko ere.

– Ebazpen honetako 2.c.5.d) idatz-zatian aurreikusitako lehorte-eremua finkatzea eta honen ezaugarriak ematea; ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ere aipatuko dira.

– Ebazpen honetako 2.c.1.d) eta 2.c.2.d) idatz-zatian adierazitakoaren inguruan aukeratutako irtenbidea justifikatzea.

2.F.– Ingurumena Zaintzeko Programa

b) En la ejecución de caminos de accesos a la obra y ocupaciones temporales por establecimiento del parque de maquinaria y ubicación de acopios se evitará la afectación a los restos del antiguo Molino de Anoeta.

2.c.7.– Limpieza y acabado de la obra.

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras. Los materiales resultantes de las demoliciones, retirada de encofrados y en general, de las operaciones de limpieza, serán desalojados de la zona y depositados en un vertedero autorizado.

2.D.– Asesoría ambiental.

Hasta la finalización de la obra y durante el período de garantía de la misma y, fundamentalmente, durante la fase de replanteo de las obras y de movimientos de tierras, la Dirección de Obra deberá contar con una asesoría cualificada en temas ambientales y medidas protectoras y correctoras, según las determinaciones del Estudio de Impacto Ambiental. Las resoluciones de la Dirección de Obra relacionadas con las funciones que le asigne el pliego de condiciones sobre los temas mencionados deberán formularse previo informe de los especialistas que realicen dicha asesoría.

2.E.– Diseño del Programa de Trabajos.

Con carácter previo al inicio de las obras el Contratista deberá elaborar una serie de propuestas de actuación detalladas en relación con los aspectos que se señalan en los subapartados siguientes. Dichas propuestas quedarán integradas en el Programa de ejecución de los trabajos, y deberán ser objeto de aprobación expresa por parte del Director de Obra, previo informe de la asesoría ambiental mencionada en el apartado 2.D de esta Resolución.

– Delimitación precisa en cartografía de detalle de un perímetro de seguridad suficiente que permita la preservación de la vegetación de ribera de la margen izquierda, según las determinaciones del Estudio de Impacto Ambiental.

– Trazado de los caminos de obra, localización del parque de maquinaria e instalaciones auxiliares, lugares de almacenamiento de materiales y ubicación de los acopios temporales de tierra vegetal. Detalle de las características y localización de los sistemas de limpieza de ruedas de camiones a la salida de la zona de obras. Se presentará cartografía detallada de estos elementos, y se preverá su restauración.

– Localización y características del área de secado previsto en el apartado 2.c.5.d) de esta Resolución, con detalle de las medidas correctoras que, en su caso, deban ser establecidas.

– Justificación de la solución adoptada en relación con lo señalado en los apartados 2.c.1.d) y 2.c.2.d) de la presente Resolución.

2.F.– Programa de Vigilancia Ambiental

Ingurumena Zaintzeko Programa egingo da ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean proposatutakoaren eta horren osagarri diren agirien arabera. Horri erantsiko zaizkio, behar denean, Ebazpen honetako 2.E atalean adierazitako Lan-egitasmotik eratorritako kontrolak eta ondoren zehazten diren beste kontrol hauek:

Ingurumena Zaintzeko Programa Obra kontratatze-ko Baldintza Pleguetan sartuko da eta dagokion aurrekontua izango du.

2.f.1.– Sortutako gorabeheren erregistroa

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurugiro Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egon beharko da eta, obrak amaitzen direnean, nolana ere, Sailburuordetzari bidali beharko zaio.

2.f.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola

Okupatu dena, proiektuaren aurreikuspenekin bat datorrela egiaztatuko da eta ez dutela gainditu obrek proposatutako eremua.

2.f.3.– Indusketako materialen kalitate-kontrola eta horien kudeaketa

a) Indusitako materialen jarraipena egingo da, material horiek karakteritu eta koantifikatzen direnetik hasi eta amaierako helburura arte. Jarraipen hori dagokion kudeatzailearen onarpen-agiri bidez egiaztatuko da.

b) Lehortze-arean pilatutako sedimentuen kasuan, ateratako material guztitik hartutako lagin esanguratsuak aztertuko dira ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlaneko 2. eranskinean barne hartzen diren horiei buruzko karakterizazioa egiaztatzeko, aipatutako sedimentuen azaleko laginak aztertzetik lortu zena.

2.f.4.– Leheneratze-lanen arrakastaren kontrola

Obrak amaitu ondorengo bi urteetan, proiektuak eragindako eremua leheneratzeko ekintzak izan duten arrakastaren aldizkako jarraipena egingo da.

2.f.5.– Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisisen emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak obrak amaitu ondoren eta urtean behin, ingurumena zaintzeko programa amaitu arte, bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean emaitzen analisisa jasoko da, epe horretan emandako gertakari nagusiak, gertakarien arrazoiak eta konponbideak bereziki aipatuta.

El Programa de Vigilancia Ambiental deberá llevarse a cabo de acuerdo con lo propuesto en el Estudio de Impacto Ambiental y la documentación que lo complementa, debiendo añadirse los controles que, en su caso, se deriven del Plan de Trabajos citado en el apartado 2.E, así como los controles que a continuación se detallan.

El Programa de Vigilancia Ambiental quedará integrado en el Pliego de Condiciones para la contratación de la Obra y contará con el presupuesto correspondiente.

2.f.1.– Registro de eventualidades.

Deberá llevarse un registro de las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras. Dicho registro deberá estar disponible para su inspección por la Viceconsejería de Medio Ambiente, y remitirse a ésta al finalizar las obras.

2.f.2.– Control de los límites de ocupación de la obra.

Se comprobará que la ocupación realizada se corresponde con las previsiones del proyecto, sin afectar las obras más superficie de la prevista.

2.f.3.– Control de la calidad de los materiales de excavación y su gestión.

a) Se realizará un control de los materiales excavados desde su caracterización y cuantificación hasta su destino final, el cual deberá acreditarse mediante documento de aceptación del gestor correspondiente.

b) En el caso de los sedimentos depositados en el área de secado, se realizarán analíticas sobre muestras representativas del conjunto del material extraído con objeto de confirmar la caracterización que sobre los mismos se incluye en el anexo 2 del estudio de impacto ambiental, obtenida a partir del análisis de muestras superficiales de los citados sedimentos.

2.f.4.– Control del éxito de la restauración.

Durante los dos años siguientes a la finalización de las obras se realizará un seguimiento periódico del éxito de la restauración del espacio afectado por el proyecto.

2.f.5.– Los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia quedarán debidamente registrados y se remitirán a esta Viceconsejería de Medio Ambiente. Dicha remisión se hará una vez finalizada la obra, y con una periodicidad anual hasta la finalización del Programa de Vigilancia Ambiental. Los resultados de dicho Programa de Vigilancia deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad especializada en temas ambientales. Dicho informe consistirá en un análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este periodo, sus posibles causas y soluciones.

2.f.6.– Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez eta Herri Administrazioen ikuskaritza zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.G.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta Ingurumena zaintzeko Programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle eta zuzentzaileak eta Ingurumena zaintzeko Programa jarduketaren sustatzaileak edo ofiziozkoak hala eskatuta aldaraz daitezke, Ingurumena zaintzeko Programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

2.H.– Ebazpen honen aurreko idatz-zatietan xedatutakoa kaltetu gabe, proiektuaren titularrak honako agiri hauek bidali beharko ditu Ingurugiro Sailburuordetzara:

2.h.1.– Obrak amaitzean, obra horiek garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, Ebazpen honen 2.f.1 atalean aurreikusitakoaren arabera.

2.h.2.– Urtero, obrak hasten direnetik, Ebazpen honen 2.f.5 atalean aurreikusitako ingurumena zaintzeko programari buruzko dokumentua.

3.– Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 47.8 artikulua araberan, bi urteko epea finkatzen da proiektua burutzen hasteko, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita. Sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazioa baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak luzatu ahal izango du hasiera emateko epea, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko martxoaren 3a.

Ingurumen sailburuordea,
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.

2.f.6.– Sin perjuicio de la normativa que sea de aplicación en cada caso, los diferentes datos se almacenarán por parte del Promotor del proyecto en un soporte adecuado durante al menos dos años, estando a disposición de los servicios de inspección de las Administraciones Públicas.

2.G.– Las medidas protectoras y correctoras, así como el Programa de Vigilancia podrán ser objeto de modificaciones, incluyendo los parámetros que deben ser medidos, la periodicidad de la medida y los límites entre los que deben encontrarse dichos parámetros, cuando la entrada en vigor de nueva normativa o cuando la necesidad de adaptación a nuevos conocimientos significativos sobre la estructura y funcionamiento de los sistemas implicados así lo aconseje. Asimismo, tanto las medidas protectoras y correctoras como el Programa de Vigilancia Ambiental podrán ser objeto de modificaciones a instancias del Promotor de la actividad, o bien de oficio a la vista de los resultados obtenidos por el Programa de Vigilancia Ambiental.

2.H.– Sin perjuicio de lo dispuesto en apartados anteriores de esta Resolución, el Titular del proyecto deberá remitir a esta Viceconsejería de Medio Ambiente los siguientes documentos:

2.h.1.– Al finalizar las obras, el registro de las eventualidades surgidas durante su desarrollo, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras, de acuerdo con lo previsto en el apartado 2.f.1 de esta Resolución.

2.h.2.– Con una periodicidad anual desde el inicio de las obras, el documento relativo al Programa de Vigilancia Ambiental previsto en el apartado 2.f.5 de la presente Resolución.

3.– Imponer, de acuerdo con el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, un plazo para el inicio de la ejecución del proyecto de 2 años, a contar desde la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin haberse procedido al inicio de la ejecución del proyecto, por causas imputables al promotor, la Declaración de Impacto Ambiental perderá toda su eficacia. No obstante, el órgano competente podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución si existieran causas debidamente justificadas.

4.– Ordenar la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2003.

EL Viceconsejero de Medio Ambiente,
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.